



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

Ainhua Mindeguia Santesteban
Txomin Hualde Elizalde
Ezekiel Loiarte Santesteban
Pedro Hilario Santesteban Loyarte

2025eko maiatzaren 21ean, 19:30tan, ohiko biltzarrean elkartzen dira Zubietako Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. Ernesto Domínguez Olea —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Izaskun Mielgo Rey. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. - AKTA ONARTZEA.

Udalburuak gaia azaldu ondoren, bozkatzera deitu du, eta Udalbatzak aho batez **hurrengoa erabaki du:**

1.- 2025eko martxoaren 20ko akta onartzea.

2.- AURKIDI ETA IRAMENDI PARAJEAK OIHAN ENKANTEA: PLEGUEN ONESPENA.

Udalburuak azaldu du Aurkidi eta Iramendi parajeak esleitu gabe gelditu zela, ez baitzen eskaintzarik jaso. Udalburuak bozkatzera deitu eta Udalbatzak **aho batez hurrengoa erabaki du:**

1.- Aurkidi eta Iramendi parajeak lotea enkantean berriz ateratzea, %10ko beherapenarekin.

2.- Enkantea Nafarroako Kontratazio Atarian, Udalaren Web orrian eta Irigarki Oholean argitaratu ostean kontatzen hasita aurkezteko 15 eguneko epea emanez.

3.- Oihan enkantea iragartzeaz gain, enkantearen berri ADEMAN elkarteei ematea haien kideen artean informazioa zabaldu dezaten, enkantean parte hartu dezaten eskatuz.



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

Martxel Elizalde Elizalde zinegotzia sartzen da

3.- ESKAERAK

3.1 Lino Elizalde Loyarte, herriko talde baten izenean, Maestraren etxearen egoerari buruz kezkatuta agertu dira eta udalari zeinbait galdera egiten die. Gaia eztabaidatu ondoren, Udalbatzak **hurrengoa erantzutea erabaki du:**

1.- Udal honek, geratzen zaion legegiltzandian, ez du intentziorik Maestraren etxean inolako gasturik egiteko. Udal txostenan agertzen den bezala erreabilitazio integrala beharrezkoa du eraikina, bizigarritasun araudira egokitzeko.

2.- Ikusirik zein den etxebizitzaren egoera orokorra, udalak eskolan bi etxebizitza egiteko asmoa du. Horretarako udal arkitektuari memoria egiteko enkargua eman zitzaion eta Nafar Gobernuako Toko Inbertsioen plana 2026-2028 dirulaguntzan aurkeztu da (Memoria atxikitzen da).

3.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.

4.-ALKATE EBAZPENAK.

Alkateak irakurri ditu emandako ebazpenak (15/2025- 32/2025 ebazpenak).

****** Gai zerrendatik kanpo, presazkoa dela aho batez aitortu ostean, legeak eskatutako gehiengo osoa betea izanik, honako gai hau eztabaidatu da:

- MOZIOA, ARCELOR MITALEN PLANTA ITXIERA LEGASAN

Udalburuak azaldu du gaur bertan aurkeztu dutela mozioa, irakurri eta bozkatzera deitu du. Udalbatzak **aho batez hurrengoa erabaki du:**

1. Mozioa onartzea.

2. Interesatuari jakinaraztea.

"Zubietako udalak, ArcelorMittal AMDS Processing-eko enpresaren ordezkariak sindikalararen (ELA, UGT) eskaeraren aurrean, 2025eko Maiatzak 21eko osoko bilkurara eramaten dugu honako mozio hau:



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

ARRAZOIEN ADIERAZPENA

Pasaden 2025eko Apirilean, ArcelorMittal enpresak, langileen ordezkaritzari, 40 lanpostu suntsitu eta enpresak Legasan duen plantaren itxiera helburu duen EEE bat aurkeztu ziela. Erabaki hau justifikatzeko, arrazoi produktibo zein organizatiboak jarri zituzten mahai gainean, eta horrekin batera produkzio guztia Aguraingo plantara eramatearen intentzioa helarazi ere.

Plantilla osoaren ardura da, Arcelor taldeko kide den enpresa baten lanpostuen defentsa eta mantenua egitea, hau dela eta, inguruko udaletxeetara zuzentzen gara gatazkan honetan arduraz jokatu eta inplikazioa eskatzeko zuen eskuetan dagoen guztia eginaz.

EEEak aurrera jarraitzen badu eta Legasako planta itxiko balitz, eskualde honek 40 lanpostu galduko lituzte, inguruko ehun industrialari ere eraginez.

Plantilako langile danak, gure lanpostuen defentsan mobilizazioak martxan jartzea erabaki dugula. Horregatik, udaletxeko plenoari eta bertan parte hartzen duten alderdiei ondorengoa eskatzen diegu:

- 1.- Kaleratzeen eta ArcelorMittal-ek Legasan aurrera eramaten ari den enpleguaren suntsiketaren aurka posizionatzea.
- 2.- Euren eskumenen arabera, Legasako plantako aktibitatearen alde ekarpenak egitea.
- 3.- Nafarroako gobernua zein Arcelor Mittal-i, Nafarroako industria eta bereziki jopuntuan dauden Legasako langileen lanaren alde konpromisoak exijitzea.
- 4.- Udalari, kaltetuak dauden langile guztiei elkartasuna adierazi eta datozen egunetan martxan jarriko diren mobilizazioetan parte hartu dezan eskatzen diogu.

Zubietan, 2025eko Maiatzaren 21ean"

5.- HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOAK.

Jarraian Udalbatza hurrengo gaien inguruan jakinaren gainean gelditu da:

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamenduak emandako luzapen aprobetxamendu baimenak: Ignacio Maria Echeverria Hualde-- Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamenduri egindako oihan aprobetxamendu eskaerak; JM Echecolonea Urriza----- Kantauri Konfederazio Hidrografikoaren ebazpena Telefonica De E.SAUbaimena emanez zuntz optikoaren instalazioa baimena



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

emanez— Lagun egiteko animaliak zaintzea eta katu kologiak kudeatzeko betebeharrei buruzko informazioa.—“Baztan-Bidasoa mapa zikloturista”izeneko proiektuaren barruan dagoen oinezko ibilbideen sarean Zubietako ibilbideak daude eta bi hobekuntzak egin behar dira; ikusitako trackak ibilbidearen hasiera plazan kokatzen du eta zubianizan behar da eta bestaldetik, zeinbait bide garbitu eta markak margoztu behar dira.

6.- GALDE-ESKAERAK

Ez dago galde-eskaerik.

Eta bertzerik ezean, 20:00ak direnean, alkate jaunak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.